

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA****Aurkitu ez diren zordunentzako jakinarazpena**

Honako aldietako auzo ekarpen tasen likidazioa jakinarazi ezin izan zaien subjektu pasiboen zerrenda:

HIRUGARRENA	KONTZEPTUA	ALDIA	ZENBATEKOA (EURO)
BAÑOS OLLERO, M ^o CRISTINA	AUZO EKARPENA	2021. URTEA	187,73

Adierazitako kontzeptuengatik dauden zorrei dagokienez, goian aipaturikoei jakinarazten zaie zorra ordaintzeko 15 egun dituztela, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera.

Ordainlekua: Ordainketa Kutxabanken egingo da, administrazio batzarraren kontu honetan: ES23 2095 3212 63 1095221023.

Premiamendu bidea: borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, errekarua eta interesak ordaintzea dakarren betearazte aldia hasiko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoari jarraituz. Kobratu beharrekoari ehuneko 5eko errekarua ezarriko zaio, harik eta premiamendu probidentzia jakinarazi arte. Premiamendu jakinarazpen horrek ezarritako epean ordainduz gero, ehuneko 10eko premiamendu errekarua murriztua ordainduko da. Epe hori igarota, berriz, ehuneko 20ko errekarua, berandutze interesak eta eragindako kostuak. Ohartarazten da ezen errekurtoa jarri arren premiamendu prozedura Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak 14.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan baino ez dela bertan behar geratuko.

Errekurtsoak: berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Berganzoko Administrazio Batzarraren lehendakariari, jakinarazpena ondorengo edo hori egiteko epea bukatu ondorengo egunetik aurrera. Berraztertze errekurtoaren esanbidezko edo isilbidezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, edo sei hilabetekoa, ezetsitatzat eman eta hurrengo egunetik aurrera. Egoki iritzitako beste edozein errekurto ere jartzeko aukera dago.

Honako hau ALHAOn argitaratzen da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Berganzo, 2021eko irailaren 15a

Errejidore-lehendakaria
EMILIO MANUEL LÓPEZ GUTIÉRREZ